

## AGINTARIAK ETA LANGILERIA

### Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

#### EUSKAL HERRIKO UNIBERTSITATEA

## 3116

*EBAZPENA, 2020ko uztailaren 17koa, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko gerentearena, UPV/EHUko lanpostu bat izendapen askearen bidez betetzeko deialdi publikoa ebazten duena.*

Kimika Fakultateko zuzendariak egindako txostena ikusita eta lanposturako proposatutako pertsonak 2020ko ekainaren 1eko ebazpenean (EHAA) eskatzen ziren betekizunak eta ezaugarriak betetzen dituela ikusita-ebazpen horretan UPV/EHUko lanpostu bat izendapen askeaz betetzeko deialdi publikoa iragartzen zen-, ebazpen horren laugarren oinarria betez eta Euskal Funtzio Publikoari buruzko uztailaren 6ko 6/1989 Legearekin bat etorriz (1989ko uztailaren 28ko EHAA). Gerentzia honek, Universidad del País Vasco / Euskal Herriko Unibertsitateko Euskal Herriko Unibertsitateko errektoreak 2017ko urtarrilaren 25ean hartutako erabakia, gobernu taldearen egitura eta funtzionamendu-arloak zehazteko eta eskumenen eskuordetzeko dena (2017ko otsailaren 3ko EHAA) erabiliz, honako hau,

#### EBAZTEN DU:

Lehenengoa.– Maria Teresa Huarte Iturrioz izendatzea behean azaltzen den lanpostua betetzeko:

- Izena: Kargudunaren idazkaria (ikastegiak).
- Erref.: F 356.
- Eskala: Administraria/Administrari laguntzailea.
- Taldea: C/D.
- Zenbatgarrena: 7.
- Maila: 18.
- Hizkuntza eskakizuna: 2; derrigorrezko data: 2002ko abenduaren 31.
- Langunea: Kimika Fakultatea.
- BE.
- Campusa: Gipuzkoa.

Bigarrena.– Izendapena EHAAn argitaratu den biharamunetik ondorioak izango ditu.

Hirugarrena.– Ebazpen honek administrazio-bidea agortzen du eta bere aurka berraztertze errekurtsoa jarri ahal izango da Gerentzia honen aurrean, hilabeteko epean. Nahiago bada, administrazio-auzietako errekurtsoa jarri ahal izango da zuzenean Administrazio Auzietako Epaitegi egokian; horretarako hilabete bi egongo dira, Ebazpen hau argitaratzen den egunaren biharamunear hasita. Hori guztia, Unibertsitateko Estatutuetako 160. artikuluan, Administrazio Prozedura

Erkidearen 39/2015 Legeko 123. artikuluan eta uztailaren 13ko Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen Legeko 8. eta 14. artikuluetan ezarritakoa betetzeko.

Leioa, 2020ko uztailaren 17a.

Gerentea,  
MIREN LOREA BILBAO ARTECHE.